

Garbiketa ordenantzak ez du Arrasate garbiagoa ekarri

Asko hitz egin da EAJ-PSE gobernuak legealdi hasieratik ezarri duen Garbiketa Ordenantza edo Mozal Legea delakoaz. Alabaina, Arrasateko EH Bilduk herria sekula baino zikinago dagoela uste du. Orain arte, gure irakurketa hau izan da:

- Ordenantza ez zen eragileekin eta oposizioarekin adostu. Inposatu egin zen eta helegite epean apaindu besterik ez zen egin.
- Beste bide batzuk jorratu daitezkeen bitartean, ez dugu debekuen eta isunen bidea konpartitzen.
- Ordenantzaren helburua ez da Arrasate garbiagoa izatea, baizik eta EAJ-PSE Gobernuak kaleetan ikusi nahi ez dituen zenbait adierazpen eta aldarrikapen politiko ezabatzea.

Lehen bi puntuen inguruan askotan mintzatu gara. 3. baieztapena egiteko, ordea, hilabete batzuk pasata, herritarrok zuen kabuz ondorioak ateratzera gonbidatzen zaituztegu.

Nola daude Arrasateko lorategiak eta parkeak Garbiketa Ordenantza indarrean dagoenetik? Igarri al duzue txakur kaken beherakadarik?

Nola daude Arrasateko kaleak eta auzoak egunero eta batez ere jai egunen biharamunean? Igarri al duzue plastiko eta kristalen beherakadarik?

Nola ikusten dituzue gure mendi eta bide publikoetako bazterrak? Igarri al duzue zikinkeria gutxiagorik?



Herri honetan pintada politikoak bakarrik ezabatzen dira egun batetik bestera. Aipaturiko zikinkeriek, okerrera egin dute eta ordenantzaren arduradunek ez dute inongo neurririk hartu haien ordenantza atal hauetan aplikatzeko, are gutxiago pedagogia apur bat egiteko.

Izan ere, ordenantzan badago txakur kaken inguruko artikulua bat... baina pintadek bakarrik eragin izan dute Udal Gobernuaren sumindura, adierazpen instituzionalak, garbiketa kostuaren publikatzea etb.

Honenbestez, bi proposatzen luzatzen dizkiogu Udal Gobernuari Arrasate garbiago bat izan dezagun:

- Debekuaren bidea uztea eta gaur egungo komunikabide eta baliabide digitalek eskaintzen dituzten formatu berrien aldeko formakuntzak eta kanpainak bultzatzea. Askotan esan dugun bezala, gu ere ondare historikoa zaintzearen alde gaude. Baina argi dago, debekuak ez dituela sekula pintadak kaleetatik guztiz desagerraraziko. Horretan tematu beharrea eta adierazpen askatasunaren eremuan sartu beharrea, inposiziorik gabeko politika batek asko erraztuko luke, aldarrikapenak sare sozialetan, prentsa idatzi eta digitalean egitea, adibidez. Garai berrietan formatu berriak erabiltzearen aldekoak gara, inondik inora, inposizio zaharrekin erantzutearen aldekoak.
- Gobernuak benetan herri garbiago baten alde lan egin nahi badu, txakur kakez, plastikoez eta kristalez ere arduratzea. Inondik inora, Garbiketa Ordenantzak ez baitu orain arte herri garbiagoa ekarri.

Arrasateko EH Bilduko Udal Taldea
Arrasaten, 2017ko maiatzaren 17an